

HIZBEGIA 07:

Gipuzkoarren Hizkuntza Pertzepzioen Inkesta Kuantitatiboa

udal <> ekin
EUSKARA TEKNIKARIEKIN ELKARLANEAN

**2007ko GIPUZKOARREN HIZKUNTZA PERTZEPZIOEN
INKESTA KUANTITATIBOAREN INTERPRETAZIOA**

2007ko GIPUZKOARREN HIZKUNTZA PERTZEPZIOEN INKESTA KUANTITATIBOAREN INTERPRETAZIOA

Lantaldea:

Edorta Bergua (GFA)

Estepan Plazaola (Bergarako Udala)

David Izaga (Irungo Udala)

Garbiñe Loiarte (GFA)

Nekane Jauregi (GFA)

Joxpi Irastortza (EMUN)

Kontrastea:

Gotzon Egia eta Joxean Amundarain (GFA)

Joxemari Iraola (Lezoko Udala), Joseba Palenzuela (Mutrikuko Udala), Alex Aisa (Donostiako Udala), Amaia Zinkunegi (Debako Udala) eta Maite Arregi (Villabonako Udala)



Gipuzkoako Foru Aldundia

2009ko urria

AURKIBIDEA	2
1. AURKEZPENA	3
2. ALDERDI POSITIBOAK	3
2.1. POTENZIALITATEA: EUSKARAREN BERRESKURATZEA HASITA	3
2.2. EUSKARAK HAINBAT IRUDI ATRIBUTU POSITIBOAK DITU ETA BILAKAERA ONA AURREIKUSTEN ZAIO.....	7
2.3. HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO LANAK BABESA JASOTZEN DU ETA SAKONTZEKO ESKARIA DAGO	10
3. ALDERDI EZ HAIN POSITIBOAK	11
3.1. GAITASUNA: BIZTANLERIA HANDIKO GUNEA ERDALDUNENAK.....	11
3.2. ZENBAIT IRUDI-ATRIBUTU.....	12
3.3. IKASKETA ETA SUSTAPEN BIDEAK HOBETU EDO AREAGOTU BEHARRA	16
4. BESTE ZENBAIT ALDERDI	17
4.1. ERABILERAN ERAGITEN DUTEN ZENBAIT FAKTORE.....	17
4.2. INGELESA, FRANTSESA ETA GIPUZKOARRAK	18
5. ZENBAIT ONDORIO	22
6. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK	23

1. AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuko Euskara Zuzendaritza Nagusiarentzat Siadecok koordinatutako 'TEKNIKARI 07' programaren barruan egindako ikerketa lanean jasotako datuen interpretazioa da ondoren aurkeztuko duguna.

Gipuzkoarren hizkuntza pertzepzioen inkesta kuantitatiboaren (HizBeGia 07)¹ interpretazioa udal<>ekin (2009-2010) egitasmoaren baitan egin da. Interpretazioa lantalde batek egin du adituen ekarpen, proposamen eta iradokizunekin osatua.

Aipatutako ikerlanak, 15 urtez gorako 1200 gipuzkoarri egindako telefono bidezko inkesta bat du oinarri eta helburua hizkuntzen arteko bizikidetasuna nolakoa den ezagutzea da. Jasotako datuek hizkuntzen hainbat alderdiren inguruko nolabaiteko joerak erakusten dituzte eta horietako esanguratsuenak azaltzea da txosten honen helburua.

Esanda doa, 2007an egindako gipuzkoarren pertzepzioen inkestetatik ateratako datuen analisisien interpretazio BAT egin dugula; hori bai, lantaldean adostutako interpretazioa da. Zalantzarik gabe, txosten honetan aurkezten dugun interpretazioa ez da itxia, hainbat ñabardura egin dakizkioke txostenari, zenbait proposamen eta iradokizun, eta jakina, guk esan ez ditugun ondorioak ere proposa daitezke.

Txosten honetan lantaldearentzat positiboak diren alderdiak azaltzen dira, eta, hain positiboak ez direnez gain, esanguratsuak diren beste hainbat alderdi ere bai. Bukaeran, datu esanguratsuenak aintzat hartuta ondorio batzuk atera ditugu eta aurrera begirako proposamen batzuk ere bai.

2. ALDERDI POSITIBOAK



2.1. POTENZIALITATEA: EUSKARAREN BERRESKURATZEA HASITA

31-46 adin-tarteko inflexio-puntua igarota, gazteetan goranzko joera nabarmena dago hainbat aldagaietan:


1. Gaitasuna:

- Orokorrean erdiek euskaraz ondo hitz egiten dute: 15-30 urte bitartekoetan, %65ek. (3.1 atala, 23. or.).

¹ Hemen txostenaren lotura: <http://udalekin.net/dokumentuak/dokumentazioa/hizbegira-07-gizarteratzea>




- Lehen hizkuntza euskara dutenen %93k ondo egiten du. (2.3.atala, 16. or.)




2. Elebitasun mota:

- Orokorrean elebidunen %37 moldatzen da euskaraz hobeto, 15-30 urte bitartekoetan elebidunen %46. Elebidunak ugaltzen eta horien barruan euskal elebidunen proportzioa ere bai. (3.3. atala. 30. or.)




3. Transmisioa:

- Orokorrean, bi gurasoak euskaldunak direnean gehienek (%80k) euskara bakarrik jaso dute lehen hizkuntza gisa. (2.2 atala, 14. or.)




- Lehen hizkuntza euskara bakarrik jaso dutenen proportzioa goraka doa: 31-35 urtekoetan, %31; 15-30ekoetan %39. (2.1. atala, 11. or.)




4. Erabilera:

- Orokorrean, erabilera indizea %36 izanik; goranzko joera antzematen da: baxuena 46-60 urtekoetan (%31); altuena, 15-30 urtekoetan: %43. (4.2 atala, 45. or.)




2.2. EUSKARAK HAINBAT IRUDI ATRIBUTU POSITIBOAK DITU ETA BILAKAERA ONA AURREIKUSTEN ZAIO



- 15 urtetik gorako gipuzkoarren pertzepzioa da, euskara **etorkizuneko hizkuntza** dela, alegia, luzaroan biziraungo duen hizkuntza izango dela. Atributu guztietatik balorazio altuena jaso duena izan da, %96 (4.3. atala, 56. or.).
- **Hizkuntza erakargarria** (balorazio altuena, (%82) (4.3. atala, 56. or.)




- **Bilakaerarekiko pertzepzioa.** Euskara da azken 5 urteetan hizkuntzekiko interes mailan gorakadarik handiena izan duena. Era berean, gehienek ustez euskarak izan du eta izango du gorakadarik handiena gizartean eta baita bakoitzaren erabileran ere. (4.3. atala, 55. or. eta 9. atala).



- **“Euskara inposatu nahi den hizkuntza” pertzepzioa apaltzen.** Oro har, inkestatuen %60ek dio ingelesa inposatu nahi den hizkuntza dela. Euskara inposatu nahi den hizkuntza dela pentsatzen dutenen eta gaztelania dela inposatu nahi den hizkuntza diotenen artean ez dago alde nabarmenik. Oso gutxik uste du Frantsesa inposatzen den hizkuntza denik (4.3. atala, 56. or.). Bestalde, gazteenen artean, gehiago dira uste dutenak gaztelania inposatu nahi den hizkuntza dela euskara inposatu nahi den hizkuntza dela baino (6.2 atala, 76. or.).



- **Euskara afektiboki berea sentitzen du %77ak.** (4.3. atala, 56. or.).




- **Hiztun taldeen ezaugarriak:** euskalduna gaztea, ikasketa altuagoa duena... ; elebakarra zaharragoa, oinarritzko ikasketak dituena... (3.6. atala, 38. or.)


Aldagai soziodemografikoak	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak
Adina	Biztanleria gazteagoa da, eta bereziki 15 eta 30 urte artekoen pisua handiagoa da.	Biztanleria gaztea da baita ere baina bereziki gazte-helduen multzokoek dute pisurik handiena	Heldu eta bereziki adinekoek dute pisurik gehien, batez besteko adina 51,8 urte izanik.
Sexua	Ez dago alde nabarmenik	Ez dago alde nabarmenik	Ez dago alde nabarmenik
Eskualdea	3tik 1, Donostialdekoa; %20 Goierri-Tolosaldekoak eta beste hainbeste Debarroakoak	3tik 2 Donostialdekoak	Erdiak Donostialdekoak; %17 Debarroakoak eta %16 Bidasoa Beherekoak
Familia-mota	Ez dago alde nabarmenik	Seme-alabadun familia edo bikoteen pisua handiagoa da (3tik 2)	Ez dago alde nabarmenik
Jaioterria	Udalerrri berean jaiotakoaren pisua handiago da (%66)	Udalerrri berean jaiotakoak %56 dira	Gehienak udalerriz kanpo jaiotak dira (%65)
Bukaturiko ikasketak	Goi mailako unibertsitate ikasketak dituztenak gehiago dira, biztanleria osoarekiko alderatuta	Goi mailako ikasketadunak eta erdi mailakoak dituztenak ere gehiago dira	Erdiek baino gehiagok oinarritzko ikasketak edo baxuagoak dituzte
Lan egoera	Kooperatibista eta ikasleen pisua handiago da	Besteren kontura lan egiten duten langileek pisu gehiago dute	Erretiroa hartutakoak eta etxeke lanetan ari direnak nabarmen gehiago dira multzo honetan
Lan sektorea	Ez dago alde nabarmenik	Merkataritza eta ostalaritzaz aparte zerbizuetan (aholkularitza, aseguruak, finantzak, administrazioa...) lan egiten dutenen presentzia altuagoa da	Langile aktiboak ez direnen pisua nabarmen altuagoa da
Kategoria sozio-profesionala	Administrazio publikoko funtzionario edota enplegatuen pisua handiagoa da	Koadro ertain, teknikari eta goi kargudunek pisu gehiago dute.	Lanean ari ez direnen pisua handiagoa da

2.3. HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO LANAK BABESA JASOTZEN DU ETA SAKONTZEKO ESKARIA DAGO

- **Ofizialtasuna.** Bi hizkuntza ofizial izatea abantaila da %77arentzat. (5.5. atala, 69. or.)




- **Normalkuntza lanaren babesa eta eskaria:** Herritarren gehiengoak ondo baloratzen du erakundeek euskara sustatzeko egindako lana eta gehiago dira gehiago egin beharko luketela uste dutenak, gutxiago egin beharko luketela uste dutenak baino. (10.1 atala, 104. or.)



- **Oharra:** Gipuzkoarren erdiak gutxi gorabehera erakundeen lana ondo baloratzen badute ere, ez da ahaztu behar dagokiena baino gutxiago egiten dutela pentsatzen dutenak %30 inguru direla. Esanguratsua ere bada, gipuzkoarren portzentaje handi samarrak erakunde horiek euskara promozionatzeko ez dakiela zenbaterainoko ahalegina egiten duten.

- **Euskara promozionatzeko baliabideen eraginkortasuna.** Euskara promozionatzeko erabili diren baliabideen eraginkortasuna egokia edo oso egokia dela dio %52k, ez oso egokia edo batere egokia dela uste dutenek baino 20 puntu gehiago.



3. ALDERDI EZ HAIN POSITIBOAK

3.1. GAITASUNA: BIZTANLERIA HANDIKO GUNEA ERDALDUNENAK

- Donostialdea eta Bidasoaldea, biztanleen %55. Euskararentzat arnasmune² diren eskualdeak biztanle gutxikoak dira: Urola-Kostak, %10. (1.2. atala, 8. or.)



	15 urtetik gorako populazioa	
	Absolutuak	(%)
Bidasoa Beherea	65.770	11
Debarroa	102.132	17
Donostialdea	278.741	46
Goierrri+Tolosaldea	95.566	16
Urola-Kostaldea	58.914	10
GIPUZKOA	601.123	100,0

² <http://www.tiraka.net/post/2009/09/08/mikel-zalbide-eta-arnasguneak>


Hori da beraz euskalgintzaren zinezko oinarria. Ingurumen hori da, izan, adar-adaska biziak eman ditzakeen enbor naturala. Hizkuntza ahula indarberritu nahi duen erakunde, elkarte edo mugimendu orok berariaz ahalegindu behar du, beste hitzetan esanik, bere jendearentzako **arnasmune** horiek mantentzen edo sortzen. Mantentzea ez da aski: sortu ere egin behar da halakorik, gure hiztun-elkartearen pareko ahuldade-mailara iritsitako kasuan. Hor ere argi izan behar da, ordea, egingarritasunaren aldetik etekin hobereana (eta, beraz, horri dagokion lehenetasuna) zerk duen: ondotoz errazagoa da dagoenari bizirik eustea, ez dagoena sortzea baino. Indar guztiak edo gehienak sortzen jartzea ez da beraz arrazoizkoa, zer mantendu (eta, hartatik abiatuz, zer garatu eta zer zabaldu) egon badagoen kasuetan.

3.2. ZENBAIT IRUDI-ATRIBUTU



- **Praktikoa eta beharrezkoa.** Praktikoena eta beharrezkoena adin-tarte guztietan gaztelania izanik, adinekoetan euskara ingelesa baino praktikoagoa da; 45 urtez azpikoetan, aldiz, ingelesa euskara baino praktikoagoa da eta euskara bezain beharrezkoa. (6.2. atala, 76. or.). Hala ere, euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak; bai, ordea, hiru horiek frantsesarekin alderatzen baditugu.





- **Oharra:** pertzepzio hau ez dator bat eguneroko bizimoduan hizkuntza bakoitzarekiko sentitzen den beharrezkin. Kasu horretan hauek dira oso edo nahiko beharrezkoaren datuak: Gaztelania, %96; euskara, %75; ingelesa, %31 (7.1 atala, 87. or.).





- **Zaila eta politizatua.** Alde nabarmenarekin euskara da, orokorrean, puntuazio altuena jaso duena, hau da, gipuzkoarren iritziz euskara da lau hizkuntzetatik zailena, nahiz eta gazteetan beste hizkuntzekiko aldea dezentez txikiagoa izan. Adin tarte guztikoentzako da euskara politizatuena. (6.2. atala, 76. or.)




- **Pertzepzio alde nabarmen samarrak daude euskararen erabilera %0 eta euskararen erabilera %75-%100 taldeen artean**, zenbait hizkuntzen irudi-atributu batzuei (inposatua, politizatua...) dagokienez. Euskara erabiltzen ez dutenentzat euskarak balore nabarmen altuenak; gehienbat euskara erabiltzen dutenentzat gaztelaniak. (4.3. atala, 58. or.).



- **Euskaraz komunikatu nahi eta ezina.** Nahiko edo oso maiz izan dutenak, %27. Gainera, zenbat eta gazteagoetan handiagoa da (5.1 atala, 60. or.)




- **Seme-alaben hizkuntza-gaitasunarekiko interesa:** euskaldun zaharretan, gaztelania eta ingelesarekiko interes handiagoa. Aldea oso txikia, estatistikoki ez da esanguratsua. (2.4. atala, 20. or.)



3.3. IKASKETA ETA SUSTAPEN BIDEAK HOBETU EDO AREAGOTU BEHARRA


- **Ikasketa-helburuen lorpen mailari** dagokionez, pertzepzio baxuena euskarak du, %32k dio euskara hasi zenean uste zuena baino gutxiago ikasi duela. (8.2. atala, 96. or.)




4. BESTE ZENBAIT ALDERDI

4.1. ERABILERAN ERAGITEN DUTEN ZENBAIT FAKTORE


- Euskara gehiago erabiliko luketenetatik (%42) **euskara gehiago erabiltzeko ardura** eurena dela %16k onartzen du. Dena den, eguneroko zereginetan eta aisialdian besteei egozten diegu euskara ez erabiltzearen errua neurri handi batean. (5.2. atala, 62. or.).



- **Besteen ohitura falta** edo erdaraz egiteko ohitura eta **euskaraz ez dakien jendea** egotea euskaraz ez egiteko arrazoi nagusiak (5.3 atala, 64. or.)




- **Hizkuntza erabilera eremuka:** Gipuzkoarren pertzepzioa honakoa da: euskara gehien familian, eta udaletxean erabiltzen da; gutxiago lagunartean, lan munduan, merkataritzan, ostalaritzan eta Foru Aldundian eta gutxien, berriz, osasun zerbitzuetan (4.1 atala, 43. orrialdea)³.



1	Familian	5	Ostalaritzan
2	Lagunartean	6	Osasun zerbitzuetan
3	Lantokian/ikastetxean	7	Udaletxean
4	Merkataritzan	8	Foru Aldundian


4.2. INGELESA, FRANTSESA ETA GIPUZKOARRAK

- **Hirugarren lehiakide indartsua:** Ingelesa 15-30 urtekoetan, herena hirueleduna da. (3.4. atala, 34. or.)




³ HizBeGia txosteneko grafikoko 'ia beti euskaraz' eta 'euskaraz gehiago' eskala batera ekarri dugu, hau da, goiko grafikoko 'gehienbat euskaraz'era. Era berean, 'ia beti gaztelaniaz' eta 'gaztelaniaz gehiago', 'gehienbat gaztelaniaz'era


- **Gipuzkoarren hizkuntza gaitasuna ingelesez eta frantsesez:** Gipuzkoan 5etik 1 (%20) gai da ingelesez mintzatzeko. Frantsesez mintzatzeko, aldiz, 10etik 1ek (3.1 atala, 23. or.). Gipuzkoarren %29 aritu da inoiz ingelesa ikasten eta %13 frantsesa ikasten (8.1 atala, 95. or.).




- Elebidunak %43 inguru baldin badira Gipuzkoan (euskara eta gaztelania) **%4 dira gaztelania eta ingelesa menperatzen dutelako bere burua elebiduntzat dutenak eta beste hainbeste gaztelania eta frantsesa menperatzen dutelako** bere burua elebiduntzat dutenak. Aipagarria da Gipuzkoako gazteen artean, aldiz, 10etik batek diola gaztelaniaz eta ingelesez elebiduna dela (euskaraz ez daki) (3.4 atala, 33-34. or.).




- Hirueledunak %15 inguru dira Gipuzkoako biztanleen artean. Hala ere, gazteen artean 3tik bat da hirueleduna (euskara, gaztelania eta ingelesa). Eskualdearen arabera datuetan frantsesa dakiten elebidun eta hirueledunen ehunekoak altuagoak dira Bidasoa Beherean. Bestalde, Lehen hizkuntza bezala euskara edo eta euskara eta gaztelania duten gipuzkoarren elebiduntasun maila altuago da, oro har, gaztelania soilik dutenena baino.
- **Hizkuntzengatiko behar eta interesa:** Gipuzkoako gazteen erdiek uste dute ingelesa beharrezkoa dela eguneroko bizimoduan. Frantsesari dagokionean, gazteen artean, 10etik batek uste du beharrezkoa dela eguneroko bizimoduan (7.1 atala, 85. or.).



- **Ingelesa beharrezkotzat** jotzen dutenen ehunekoa batuz bestekoa baino altuagoa da Bidasoa Beherean eta Donostialdean (ia %36); eta **frantsesa beharrezkotzat** jotzen dutenak aldiz %27 dira Bidasoa Beherean, (batez bestekoa %10ekoa den artean).



- **Hizkuntzekiko irudia euskararen erabilera-talde desberdinen arabera.** Gipuzkoarren artean euskarak eta ingelesak pizten dute orain lehen baino interes gehiago; bereziki da horrela euskararen erabilera %1 eta %39,9 artean kokatzen den taldean (talde horretan, 10etik 4 interesatua dago ingelesarekin).
- **Hizkuntzen gizarte presentziaren igoerarekiko pertzepzioari dagokionean,** euskararen erabilera altuko talde bietan ingelesaren gizarte presentziak nabarmen gora egin duela diote. Talde erdaldunetan, aldiz, euskara gailentzen zaio ingelesari (nahiz eta euskara eta gero ingelesa gizarte presentzia gehien duen hizkuntza bezala hautematen den) (9.4 atala, 102. or.).



5. ZENBAIT ONDORIO

Orain arte euskararen normalizazioan egin diren lanek emaitza positiboak ekarri dituzte. Horrek erakusten du, politika, neurri, plangintza...egokiak abian jarritz gero, lor daitezkeela emaitza positiboak normalizazioaren bidean. Etorkizuna, gure esku dago, hartzen ditugun neurrien baitan.

Goian aipatutako **lan horrek babes inportantea** izan du herritarren aldetik; hala ere, herritarrek bide hori sakondu beharra ikusten dute etorkizunari begira. Beraz, egindako bidea positiboa izan bada ere, gehiago egin beharra azpimarratzen dute herritarrek.

Bestalde, euskararen normalkuntzarako gipuzkoarrek euskara elkarte eta taldeen lana gehien baloratzeak **instituzioen eta herritarren arteko elkarlana bultzatzea eskatzen duela iruditzen zaigu**, elkarrekin lan egiteak efektu biderkatzailea ekar lezake, bakoitza bere aldetik joateak, normalizazioaren bidean pausoak makal ematea.

Etorkizuneko hizkuntza politikak eta hizkuntzen normalizazio planak diseinatu eta gauzatzekoan **hirugarren hizkuntza, hau da, ingelesa ere kontuan hartu beharko dugu**. Gurea ziurtatzea bada ere helburua, besteak ere gure plangintzetan integratu beharko ditugulakoan gaude.

15 urtetik 30era bitarteko gipuzkoarren gehiengoa euskalduna da eta proportzio hori haziz joango dela dirudi, gainera; abagunea aprobetxatu beharko genuke gure normalizazio plangintzetan adin tarte horietan euskararen erabilera eragiteko eta areagotzeko

Gazteen elebiduntzeak berekin dakar apurka-apurka erdaldunentzat, bereziki, euskarak dituen zenbait atributu negatiboren indarra ahultzea: hizkuntza inposatua, politizatua... **Elebiduntzeak gizarte-kohesioan sakontzea** ekar dezake, beraz.

Arnasguneak trinkotzen ari dira Urola Kostan, Goierrin, Tolosaldean... gaitasunean, transmisioan, erabileran... goraka. Arnasgune horiek trinko izaten jarraitzeak izugarritzko garrantzia du euskararen birikei hauspoa emateko.

Biztanle gehien duten eskualdeak dira erdaldunenak eta jakina, gipuzkoarrak osotasunean hartuta, proportzio handiena suposatzen dute. **Poliki-poliki mikro-arnasguneak sortzen joatea izan liteke bideetako bat eskualde horietan.**

Azkenik, frantsesaren presentziak behera egin duen neurrian, gipuzkoarrek diote— Bidasoa behekoak izan ezik— hizkuntza hori ez dela praktikoa, ez dela beharrezkoa. **Iparraldearekin zubiak eraikitzeke ez al litzateke beharrezko izan beharko frantsesaren gaitasuna handitzea?**

6. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Urrats asko eman dira euskararen normalizazioaren bidean, baina, bide asko ere geratzen da egiteko. Erronka handiak ditugu aurrean, hainbat alderdi hartu beharko ditugu kontuan aurrera egiteko, baina, datozen urteetan guretzat estrategikoak direnak proposatuko ditugu ondorengo lerro hauetan.

1. Gazteengan eragin

15-30 urte bitarteko gazteak.

Ikerketako hainbat datu kontuan hartuta ondorioztatu dugu belaunaldi berriak elebidun izango direla etorkizunean, baina, gure pertzepzioa edo intuizioa da belaunaldi berriak elebidun izanagatik, euskara ez dutela behar beste erabiltzen. Horregatik uste dugu gazteengan eragitea estrategikoa izan litekeela datozen urteetan jakitetik egitera jauzi egiteko. Dena den, ez dezagun ahaztu, badagoela gazte kopuru handi bat euskara gutxi, erdizka edo ez dakiena (etorkinen seme-alabak barne) eta horiengana gerturatzea oso-oso garrantzitsua izango dela normalizazio bide horretan.

Aisialdia

Aisialdia dela iruditzen zaigu kontuan hartu beharreko beste alderdi bat. Oro har, gizarteak berebiziko inportantzia ematen dio aisialdiari gaur egun, eta jakina, gazteek zer esanik ez, eguneko ordu asko horretan ematen baitute. Bestalde, beste mota bateko aisialdi jarduerak hartu dute herritarren artean pisua, orain urte batzuk pentsaezinak zirenak, denbora librean ulertzeko eta betetzeko beste modu batzuk agertu dira, gazteak izanik horien erabiltzaile nagusiak: gaztegunak, kirol jarduera anitzak, interneta, jokoak...

Jarduera horiek dituzte nagusiki gazteek gustuko, eta jakina, gustuko tokian, aldaparik ez. Beraz, gazteengan eragiteko jarduera horiek aprobetxatzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Horrek guztiak, hala ere, behar bezalako diagnostikoak egin beharra dakar, ez baita berdin Azpeitiko gazteengan eragin nahi izatea edo Beasaingo gazteengan eragitea, ez baita berdin gaztegunean eragitea edo ikastetxean eragitea, ez baita berdin 16 urteko neska-mutikoengan eragitea edo 25koengan eragitea, ez baita berdin...

Diskurtso berritzaileak

Baina nola iritsi gazteengana? Gazteekin konektatzeko, batetik, gazteak ezagutu behar ditugu, gazteen beharrak zeintzuk diren ezagutu behar ditugu, euren hurbiltzeko zeintzuk diren biderik egokienak aztertu eta batez ere, erakarriko baditugu euren nahi eta gustuak kontuan izanda zer berritzaileak eskaini beharko dizkiegu, diskurtsoa euren neurrira egokituz. Eskainiko dizkiegunak, esan bezala, berritzaileak izan beharko dute, 'apurtzaileak', diferenteak, betiko aska ezineko korapiloak askatuko baditugu, betiko ezintasunak gaindituko baditugu.

Derrigorrez, gerturatu egin behar dugu gazteengana eta ondoren saiatu euskararen erabilera handitzeko kanpotik bultzada bat ematen norberaren ibilgailuak aurrera egin dezan bere kasa. Eta horretarako, biderik egokiena, jarrerak eta portaerak lantzea dela iruditzen zaigu, jarrerak eta portaerak aldatu elkar-eraginaren eta motibaziaren bitartez (kontzientziak astinduko badira, motibazio integratibo edo intrinsekoa bultzatu beharko dugu), euskararen inguruko pentsamendua edo kognizioa garatuz; izan ere, zenbat eta gehiago jakin, eztabaidatu eta hausnartu euskarari buruz, esatetik egiterako pausoa arindu egingo dugula uste baitugu.

Arnasguneak

Beraz, gazteengana gerturatuz, euren iritziak entzunez eta partekatuz, pentsamendua astinduz, euskararen gaineko kognizioa garatuz, berritzaileak izanda, poliki-poliki gazteengan eragitea lor dezakegu. Eta ttanttaka-ttanttaka, lehendik zeuden arnasguneak sendotzeaz gain, arnasgunerik ez zegoenetan guneak trinkotzen joan gaitezkeelakoan gaude.

2. Eleaniztasuna eta gazteak

Bestalde, alde batetik, datuak interpretatu eta kontraste lana egiten aritu garenok beste behar bat sumatu dugu, eleaniztasunaren gogoeta egin beharra, hain zuzen ere. Gazte eleaniztunak nahi ditugu; euskarak iraungo badu, ez bakarrik euskaraz jakin baizik eta euskaraz egingo dutenak...

Nola lortzen da hori? Zein leku egin behar diegu gaztelaniari eta inglesari edo beste hizkuntzei? Badirudi ingelesa gero eta toki zabalagoa hartzen joango dela eskoletatik kanpo. Kostata euskararentzat irabazi diren esparru batzuk (aisia, kasu) beste hizkuntza batzuei zabaltzen bazaizkie, hedabideen eta teknologien mundua erabat erdaraz edo ingelesez bizi badute... nola lor litezke euskal eleaniztunak? Nola lor liteke beste hizkuntzak ondo jakinik, euskaraz biziko diren herritarrak? Horri buruzko gogoeta bultzatu beharko genuke, alegia, Gipuzkoako gizartearen eleaniztuntzea eta euskararen berreskuratzea uztartzeko bidez gogoeta egiteko gune multidiziplinar bat antolatu beharko genuke.

3. Biztanleria handiko guneak

Zonalde jendetsuenak erdaldunenak direla aipatzen da txostenean. Uste dugu, ahalegin eta esfortzu handiagoa egin beharko litzatekeela eremu hauetan, izan ere, kuantitatiboki, bederen, aurrerakada handia eragingo bailuke. Interesgarria izan liteke Koordinazio gune iraunkorra osatzea Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala eta Oarsoaldeko euskara gaietan dabiltzan ordezkariekin.